

iruner

192. zenbakia. 2011ko martxoa



Familiaola,
familia
euskaldunen
topagunea



Santiagotarrak,
170 kirolariko
klub sasoitsua

MAIATZAREN 16AN
euskalarekari

17. ^{orok}korrika TRINIDAD-DONOSTIA
2011ko martxoaren 24an 17:00

Korrika, apirilaren 12an Irunen

PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MARTXOAK 17 osteguna, 17:30

ORDIZIA MARTXOAK 26 larunbata, 11:00

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI APIRILAK 2 larunbata, 11:00

IRUN APIRILAK 9 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

VITORIA-GASTEIZ

MARTXOAK 12 larunbata, 10:30

Europa Biltzar Jauregia.

ARETO
NAGUSIAN
*Etorri aurretik
izena eman!*



902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304
IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77
irunero@infotxingudi.com
Argitaratzailea: TB S.L.
Erredakzioa
maketazioa: Ana Grijalba.
Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi
Zuzentzailea:
Xabier Kerexeta.
Inprimategia: Antza
Tirada: 3.500 ale
Lege gordailua: SS-230-94
ISSN: 1134-0606

4.- *Lapikoan*

- Pik Nik biolentxelo-jole bikotearen emankizun berritzailea.
- Familiaola, familia euskaldunen topagunea
- Mertxe Tranchek XIX. mendeko Iruni buruzko monografia idatzi du.

12.- *Kirolak.*

- Santiagotarren aurkezpen ofiziala.

15.- *Gai nagusia.*

Korrika badator!

19- *Bi hitzetan:* Berri laburrak

22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa* Zein baliotan hazi?

24.- *Eleak iruten.* Baginaren bakarrizketak

25.- *Lerroz lerro.* Iratxe Esnaola *Galerna*

26.- *Kultur Agenda*

28.- *Gazte Informazio Bulegoko berriak*

OLAIZOLA

Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Salmenta
Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza



Pik Nik, musikaren eta poesiaren uztarri

Marta Roma
bartzelonarrak eta
Iñaki Etxepare
irundarrak bat egin
zuten ausardiaz
beteriko ikuskizuna
gauzatzeko. Mundu
zabaleko hainbat
agertokitan txaloak
entzun ondoren,
Pik Nik biolontxelo-
jole bikoteak musika
eta poesia uztartzen
dituen emanaldia
eskaini du Irunen.

Musika eta poesia emanaldian, instrumentu jotzaileek eta errezeitzaileek oholtza gainean dihardute, batzuek besteen lagun eta osagarri. Pik Nik biolontxelo bikotea urrats bat harago joan da duela hiru urte apailatu zuen lanean. Musikariak errezeitzaile bihurtzen dira, agertokian dinamismoa zabalduz. Asian, Mexikon, Japonian eta Kolonbian arrakastatsu ibili ondoren, Irunen eskaini dute emankizuna.

“Lanak Filipinetan eta Mexikon ditu erroak”, azaldu digu Iñakik. “Filipinetako Cervantes Institutuak Miguel Hernandezen inguruko egitasmoa prestatzea proposatu zidan. Emaidza poesia eta

Luigi Boccherini konpositorearen musika uztartzea izan zen. Bestalde, Mexikon Samuel Maynez biolontxelo-joleak eman zizkidan partiturak ere baliatu ditugu, Nicolas Guillenen olerkiekin bateginik”.

Martak dioenez, “ikuskitzuna oso harrera ona izan du: jendea irribarretsu ateratzen da. Emanaldi klasikoagoa, zurrunagoa espero dutelako, ustekabe atsegina hartzen dute”.

Pik Nik-ek *Huapango* CDA grabatu du jada, Maynezen gaur egungo musika mexikarra biltzen duena, baita bideoklipa ere. Argitalpenak sekula CD batekin eskaini ez den materiala dakar: abestien partiturak.

Familiaola, familia euskaldunen topagunea

FAMILIAOLA egitasmoa otsailean jarri zuen martxan Irungo Udal Euskara Arloak, Urtxintxa Aisialdi Eskolarekin elkarlanean. Helburua Irungo familia euskaldunak elkartzeko gunea izatea da. Egitasmo honen barruan, otsailetik maiatzera arte 2-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten familia euskaldunentzako aisialdi ekintzak burutuko dira: jolasak, tailerrak, irteerak...

Fernando San Martin Euskara ordezkariak adierazi du egitasmo honekin aurrerapausu bat eman nahi dela euskararen normalizazioan, eta oso pozik dagoela izan duen harrerarekin. Izan ere, hasi berria den egitasmo honetan, otsailean, lehenengo hilabetean, 36 familia izan dira parte hartu dutenak.

Otsailean hiru tailer eskaini ziren: astearteetan, Euskal Jolasak; asteazkenetan, Mozorroak, mozorrotzeko erabilitako kareta eta jantziak egin zirelarik, biak Martindozenea gaztelekuan; eta Txokolate tailerra EKT elkartearen ostegunean bonboiak, eta larunbatean irteera, Tolosako Gorrotxategi gozogile ezagunaren Xaxu museo-



ra. Euskara ordezkariak espero du martxoan ere otsailean bezain harrera ona izatea eta, horrela, urtetik urtera poliki sendotzea. Izan ere, egitasmo honekin beste aisia-gune bat zabaltzen da, beste bide berri bat, familia guztiei irekia eta euskalduna izango dena. Egitasmoari jarraiki, martxo-

rako beste bi tailer antolatu dira: Perkusio tailerra eta bixigintzarena.

Apirilaren 2an eta 3an Zugarramurdiko Sorginen Etxean asteburu pasa egingo da, Graxiana aterpetxera joan eta sorginen inguruko ekintzak burututera. Irteera honetan parte hartzeko 25€ ordaindu beharko da pertsonako.

Informazioa eta izen-emateak

Izen-emateak www.urtxintxa.org/familiaola orrian egin behar dira. Plaza kopurua mugatua izango da, izen-emate ordenaren arabera banatua.

Informazio gehiago eskura daiteke

www.irun.org/euskara orrian.

Maite Etxaniz Gizarte Politikako Foru Diputatua, bi ekipamenduak eraikitzeko hitzarmenen aurrean

“Betherrameko eta Arbesko zentroek Bidasoaldeko eskaera hein handi batean aseko dute”

Maite Etxaniz Hamaikabat-eko Gizarte Politikako Foru Diputatuak adierazi du “Betherram eta Arbesko bizitegi-guneek Bidasoaldean dagoen eskaera hein handi batean aseko” dutela eta “bertako biztanleen behar errealak ia-ia bete” dituztela. Bere legegaldiaren balantzea egiteko orduan, Maite Etxenizek

nabarmendu du “Gizarte Zerbitzu eredu berriaren diseinua gure Lurraldean legegaldi honetan aurrera eramane den gizarte politikaren ezaugarri nagusia” izan dela. “Eredu hau Gizarte Politikako Departamentuaren proposamena izanda eta Gipuzkoako Batzar Nagusien babesa jaso du”.



Maite Etxaniz Foru Diputatua eta Aitor Kerejeta Hondarribiko alkatea Betherram egoitzako maketaren aurrean.

Gizarte Politikako Foru Diputatuak eredu berria hiru hastapen eta ildo estrategikoetan oinarritzen dela azaldu du: lurraldearen gizarte-kohesioa hobetzea, hartara gizartearen parte-hartzea eta gizarte-kapitalaren bultzada bateratuta; gizarte zerbitzuen izaera unibertsala, alegia, karitate sistema bat ez

baina gutariko edonork, behar izatera, bizitzako tenorearen batean balia dezakegun eskubidea; eta pertsona ardatz duen ikuspuntu komunitarioa, beharizan indibidualei erantzuteko zuzenduak dauden zerbitzuen eta prestazioen diseinuarekin. "Etorkizunari arduratsu aurre egiten ausartu gara, koiuntura ekonomiko eta politikoen menpe ez egotea helburu duen ibilbide-orri baten bidez, zeinak kudeaketa sistema zehatza ezartzen baitu".

Bidasoaldeari dogokionez, Gizarte Politikako Foru Diputatuak garrantziko deritzo pertsona nagusientzat bi bizitegi-gune eraikitzeke lortu diren hitzarmenak. "Betherram abian da eta obrak 2012an amaituko dituzte. Egoitzak 126 plaza izango ditu, eta Eguneke Zentroak, 30. Gainera, desoreka mentala duten pertsonentzat 24 plaza eskainiko ditugu bizitegi-gune batean".

Diputatuak azpimarratu du ekipamendu berrien alor honetan udalekin erakunde arteko sintonia ona izan dela. "Gure aldetik sintonia on hori Irungo Arbes auzoan beste egoitza bat burutzeko akordioan gauzatu da. 130 plaza izango ditu eta Eguneke Zentroak beste 30. Ezbairik gabe, hitzarmen hauek tarteko, egungo egoerari buelta emango diogu, gure eskaintza dezente hobetuz eta eskariaren parera hurbilduz".

Beste berebiziko erronka Mendekotasunaren Legea izan da. Gizarte Politikako Foru Diputatuaren iritziz "lan izugarria egin da, Gipuzkoa Estatuko erkidego autonomo nahiz lurraldeetako podiumera eramanez. Gure Lurraldean Mendekotasunaren Legea kari, 17.000 prestazio ekonomiko-eskaera

Foru Aldundiak gutzira adin nagu- sikoentzat 256 plaza sortuko ditu Bidasoaldean

baino gehiago izapidetu dira, gehien-gehienetan familiaren testuinguruan zaintzearekin lotura dutenak".

Hamaikabat-eko Gizarte Politikako Foru Diputatuak aditzera eman du, halaber, "alor soziosanitarioan urrats handiak" eman direla, "baita lan munduratzeko

zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako egitasmoak garatzeko ere". Maite Etxanizek jakinarazi du "hainbat ekimen garatzeko lanean gogor" ari direla. Adibide gisa Sarbideak aipatu zuen, lau lan ildok osatutakoa: formakuntza, berrikuntza, autoenplegua eta enplegu-pizgarriak. "Era berean, nabarmendu behar dut SAIATU egitasmoaren garapena, Europar Batasunarekin batera finantzatzen duguna. Honen xedea lan munduratzeko zailtasunak dituzten pertsonen eta pertsonen zuzendutako enpresen sorrera bultzatzea da". Gaur egun 1.000 haur eta gazte gipuzkoarrek Gizarte Politikako Departamentuaren babesa jasotzen du, hainbat baliabideren bitartez. Foru Diputatuaren esaneko, "momentu hauek gure jarduera familiako esku-hartzea lau egitasmoren bitartez egiten dugu (Gizalan, Osatu, Izan eta Drom Egin), baina izaera terapeutikoko bestelako esku-hartzeak ere eskaintzen ditugu. Joan den urtean 332 familia eta 643 adin txikiko artatu genituen".

Harrera egitasmoak departamentuaren ezagarrietako bat dira. "Zalantzarik gabe Estatuko abangoardia gara", dio Maite Etxanizek. "Familia-harreraren aldeko dema egin dugu adin txikikoak ahalik eta inguru normalizatuena, egonkorrena eta sozializatuena izan dezan. Horrela, ez da beharrezkoa zentro batean sartzea. Aldi berean, abian jarri dugu ekimen aitzindaria: familia-harrera zerbitzu profesionalizatua, martxa onean aurrera doana. Familia-harrerarekiko ezberdintasunak dira harrera egiten duten pertsonen profila eta adin txikikoen egoera".

Ion Elizalde Caballero

Hondarribiko H1!-eko alkategaia



Jose Luis Alberro

Irungo H1!-eko bozeramailea



Aldatzeko prest?

- Nola definituko zenuke zure burua?

Bertuteren bat eta nahiko akats, hauxe naiz ni. Gutxitan onartzen dugu hanka sartu dugula. Egutero ez, baina noizbehinka onartzea ez legoke gaizki. Irizpidea ondo finkatuta izatea ezinbestekoa da, oro har, are gehiago hiri-proiektu bati buruz ari garenean. Hondarribirako dudan proiektua azaltzen saiatuko naiz. 2011-2015 legealdia aukeratarako abagunea izango da.

- Zeintzuk izango dira hurrengo legealdirako zure asmoak?

Hondarribiko Alkaterako hautagaia naizen aldetik, eguneroko politikak aurrera eramaterakoan izango ditudan 4 ardatz nagusiak aipatu nahi ditut.

- Hondarribia eta bere herritarren defentsa beste erakundeen aurrean.

- Herritarren BENETAKO parte-hartzea sustatu. Udal parte-hartze araua egin, zeinak galdeketa egiteko aukera ahalbideratuko duen.

- Iraunkortasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa, Hondarribirako ditudan proiektu guztietarako ardatz.

- Enpatia, bestearen azalean jartzea une batez. Horrela bakarrik konpon daitezke arazoak eta gaizki ulertuak.

Ardatz politiko-moral hauek, nirekin parte hartuko duten gizon-emakumeekin batera dira ekimen honi aurre egiteko dudan ilusioaren zergatiak. Nahi izanez gero, parte har dezakezu. Eta bestela, ez da ezer gertatzen, baietz hor ere asmatu!!

- Nola azaldu nahi zenleke zure egitaraua herritarrei?

Bada, bi modutan azaltzen saiatuko naiz: alde bate-tik, auzoka; bestetik politika sektorialak aipatuta.

Hamaikabatek badu zer eskaini irundarrei

“Egunerokotasunean kale egin du udalak, bizilagunak ardatz behar ditu politikan”

Jose Luis Alberro 54 urte ditu eta Meakako irundarra da. Auzoko elkartean, Gurutze Gorrian eta Euskal Kultur Taldean aritua dugu. Egun, Hamaikabat proiektuarekin bat eginez irundarren alde egin nahi du hurrengo hauteskundeetan.

Zer du Hamaikabatek Irunen eskaintzeko?

Hamaikabatek badu zer eskaini irundarrei. Pertsonengan oinarritutako proiektua da gurea. Bidegorriak, kirol instalakuntzak, haur parkeak, lora-tegiak, plazak, parkeak, kultu-guneak, langabeziari aurre egitea... horrelakoak dira gure politikaren ardatz. Irunen “zementua” hainbeste bultzatu eta gero, bizilagunen garaia da.

Zementuaz ari zarenean, balna, zer esan nahi duzu?

Azken urteetako hazkundera etxebizitzan oinarritutakoa izan da, zementua izan da udal gobernu honen ardatza. Tamalez, hiriaren hazkunderarekin batera ez dira bizilagunentzat bizi baldintzak neurri berdinean hazi. Egun Irunen ekipamendu-behar ugari dago.

Langabezia aitatu duzu: zer duzue proposatzeko?

Irunen langabezia %15,7an dago, Gipuzkoako altuena. Udalak ez du bertako ekonomia zaindu. Horregatik diogu udalean ere lehentasuna izan behar duela langabeziari aurre egiteak. Epe luzerako proposamenez gain, epe motzerako proposamenak ere egin ditugu: Ficobako azaleko aparkalekua debalde ireki behar da hiriko komertzioa eta zerbitzuak bultzatzeko.

Hauteskundeak prestatzen ari zarete?

Buru belarri gabilta, bai, hauteskundeak prestatzen. Gure ekarpenek badute lekua eta ziur gaude euskaltzale, abertzale eta hiritar oren artean babesa edukiko dugula.

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAko HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinar
Errepublikan)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen karri-
ka)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA
(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEko AUZO
ELKARTEA (Luis de Uranzu,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKARTEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).

Mertxe Tranchek XIX. mendeko Irunera bidaia eskaintzen du

Udal Artxiboak argitara eman du *Irunek badu historia* bildumako zortzigarren liburukia. Bertan, Mertxe Tranche ikerlariak XIX. mendeko Irun aztertu du.



Mertxe Tranche, Fernando San Martin Kultura ordezkaria eta Jose Monje udal artxibozaina.

Mertxe Tranchek apailatu duen lan mardula, *Un modelo diferente: Vida municipal de Irun durante el reinado de Isabel II*, 2006an irabazi zuen Serapio Mujika ikerketa historikoko bekaren emaitza da. Idazleak berak, Fernando San Martin Kultura ordezkariak eta Jose Monje artxibozainak aurkezpena egin zuten.

Irun, garai haren produktua

Bekaren jomuga XIX. mendean Irunen industriarik ez zegoelako ustea faltsua dela frogatzea izan arren, testuinguaren beharrak bultzatu du lau urte luzez aztertzeraz bi Karlistaden arteko garai erabakigarria (1837-1872): Antzinako Erregimenaren eta Liberalismoaren arteko transizioa. “1837an liberalek hiria sunt-

situ ondoren, Irungo liberal talde baten eta gehiengo karlisten arteko borroka politikoa hasi zen”, azaldu zuen egileak. “Liberalek hiria eraldatu zuten, nahiz eta horretarako absolutismotik zetozen eta egitura aldaketan aurrean egoskor azaltzen ziren pribilegiatuen kontra jardun behar”. Trancheren tesiaren arabera “gaur egungo Irun garai haren produktua da”. Aldaketa politiko, sozial eta urbanistiko haien adibide zenbait dira Udalak eskola publikoak eraiki zituela, baita zerga zuzenak nahiz kontabilitate sistema ezarri zituela ere. Hirigintzaren alorrean Tranchek azpimarratu zuen Irunek “erabateko transformazioa” jasan zuela. “Horren lekuko, Kolon ibilbidea. Irun

herri izatetik hiri izatera pasa zen”.

Berpizkunde horrekin zerikusi handia izan zuen 1841ean Aduana gurean kokatzeak -hain zuzen liberalen helburu nagusietako bat-, baina ez jendeak uste izan duen adina. “Harritu nau idoro izanak Aduanak aberastasuna ekarri arren, benetako aldaketa ekonomikoa trenbidea iristearekin eman zela, 30 urte beranduago. Izan ere, ezer gutxi egin zezakeen Aduanak salgaiak pitinka-pitinka heltzen baziren”.

Halaber, trenbideak aldaketa soziologikoak eragin zituen. “Pentsa, trenbidea eraikitzeke 800 gizon bakarrik etorri zirela eta errestan ekarri zutela haien bizimodua, hau da, proletarioena. Horrexegatik, garai hartan sortu zen Trenbide edo San Migel auzoari *irainen* auzoa deitu zioten”. Faktore horien guztien ondorioz, egileak probintziaren barnean ezberdina zen komunitate bat sortu zela azaltzen du, bai osiera ideologikoaren aldetik, bai garapen ekonomikoaren aldetik.

Isabel II.a eta Irun

Fernando San Martin Kultura ordezkararen esanetan, “Mertxe Tranchek kontserbatzaileen eta progresisten arteko debatea oso ongi jaso du. Isabel II.aren kasua borroka horren lekuko da, emakumezkoek erregetza erdiesteko esku-bidearen eztabaidaren isla”. Gogora ekarri zuen alaba errepublikarra izan zuela, Eulalia infanta, dibortziatu zena eta Irunen bizi eta hil



Liburuaren azala. Bertan Isabel II.a Irungo tren geltokira irisi zeneko irudia ageri da.

zena.

Jose Monje udal artxibozainak ikerlariak lau urte eta erdiz egindako ahaleginaren lekuko izan dela adierazi zuen. Lanari buruz, gaia oso ongi jorratua dagoela eta informazio zehatza bilatzeko guztiz aproposa dela esan zuen.

Liburukia HAZ-SAC-en salgai dago 13 euro-tan, hots, kostu-prezioan.



Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.

Santiagotarrak, inoiz baino handiagoa



Goian, Klubeko kirolari guztiak Javier Martinez Vesga presargazki; azken bietan, presidentea eta alkatea, hitzalditxo

Martxoaren 15ean Santiagotarrak Kirol Klubak sasoi honetako bere lehiaketa-taldeen aurkezpen ofiziala egin zuen Amaia KZn. Bizibizirik dagoen Kluba da; hala erakusten dute bai kirol alorreko lorpenek, bai kide kopuruak, aurten 170 izatera ere iritsi baitira.

Laugarren urtez ospatu den ekitaldira bildu ziren Klubeko zuzendaritza, entrenatzaileak, kirolari gehien-gehienak, Irungo Udaleko zinegotzi zenbait eta alkatea, baita kideen guraso eta lagunak ere. Ez zuten, ordea, bertan egotarik izan Ander Elosegik, Jone Otañok eta Xabi Taberna entrenatzaileak, Espainiako ur bizietako selekzioarekin Atenasen konzentratuak daudelako. Aparteko giroan, Santiagotarretako hiru lehiaketa-taldeetako kirolariak agertokira txalo artean igo ziren: ur bizietako taldea, (Olinpiar Slaloma),

eserleku mugikorreko arraunketa (Olinpiar Arraunketa) eta ur Bareetakoa (Olinpiar Pista).

Ametsetako Kluba

Javier Martinez Vesgak, *Muskuk*, bere hitzalditxoari Klubaren hasiera apalak gogoratuz heldu zion: “Oilategi batean geunden garai haietan, zazpi ontzi txandaka erabiltzen. Ezin genuen amestu ere lau hamarkada baino iragan ez eta lau lehiaketa-talde izango genituenik, ez eta gaur egungo halako instalaziorik ere”. Halaber, Santiagotarrak pentsa ezinezko kirolari kopurua iza-



Presidente eta Jose Antonio Santano Irungo alkatearekin. Eskuinean, ekitaldiko zenbait momentu. Arg: I. Larrañaga eta Santiagotarrak.



terera iritsi direla nabarmendu zuen harrotasunez. “Bistakoa da -esan zuen-presidentea pozik dagoela kirolari hauek nahiz zuzendaritza batzordeko kide bikain hauek izateagatik, etorkizunari taxuz aurre egin ahal izateko”. Presidenteak kirolariak animatu zituen eguneroko jardunean “ahalik eta balio gehien ikas ditzazuen: adiskidetasuna, diziplina, esku-zabaltasuna... Musu truk eskura daitezke guztiak eta egungo gizartean horien beharra dugu”.

Alkatea, harro

Jose Antonio Santano alkatea, lehen hitzetan, hirian

Santiagotarrak bezalako Kluba izateagatik harro dagoela adierazi zuen. “Horixe da Kluba: neska-mutiko piloa, Bidasoa ibaia bizikidetzarako, gozatzeko eta pertsona gisa hobera egiteko baliatzen dutenak”. Alkateak talde hitza azpimarratu zuen. “Nabarmendu nahi dut, oso inportantea delako denok elkarlanean aritzea”. Azkenik, Santanok “Udala beti zuekin egongo” dela agindu zien. Jaialdian Mario Simancas animatzaileak parte hartu zuen, umorezko ikuskizun laburra eta abesti bat kantatuz.



ETORKIZUNEKO NIRE PROPOSAMENA: IRUNGO UDAL GOBERNUARI BURUZ HITZ EGITEN

ANTXETA IRRATIAK bere sorreraren hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldi bat antolatu zuen martxoaren 11n, AHOTSAK “*voces para la paz*” emakume taldearekin. Euskadi, Nafarroa eta Iparraldean dauden alderdi politiko guztietako emakumezko parlamentari, kargu politiko eta sindikalek, Alderdi Popular eta UPNkoek ez beste guztiek, bake prozesua bultzatzeko Donostian eratu zuten mugimendua. Helburu bezala emakumeen partaidetza eta protagonismoa “soluzioak bilatzeko orduan” aldarrikatzen zutelarik. Eta guztiz ados nago adostu duten bakearen definizioarekin. Bakea ez da bakarrik biolentziaren ausentzia, hori baino gehiago da eta haruntzago doa: beraien esanetan, bakea justizia soziala, berdintasuna eta demokrazia gehiago lortzea da.

Aniztasunetik eta akordioa helburu dutelarik, politika egiteko modu batez hitz egin zuten ekitaldian. Modu tinkoan taldearen batasuna mantenduz, beti batuz eta inor taldetik alde egin ez zezan saiaturaz, horrela azaltzen ziguten bere asetasuna gaur egun arte, bere helburua lortzen ari baitziren. Baina ez dira asetasun lasai batean geratzen; alderantziz, tentsio baikor puntu bat mantentzen dute beraien erronka aurrera eramanez ahal izateko, eta gainera ildo berdinetik. Elkarrizketaz, malgutasunaz eta batez ere konfiantzaz hitz egin zen: beharrezkoak diren hiru ardatzak taldearen batasuna mantentzeko.

Aitortu behar dut gauzak egin eta erronkei aurre egiteko modu horrekin bat natorrela, eta horrela saiatu naiz egiten, pasa diren urtetan, nire aurreko arduretan lideratu behar izan ditudan lan taldeetan. Pertsona anitzez osaturiko unibertso bat, dinamikoa, non errealitate desberdin eta askori erantzun behar zaion, batzuetan modu azkarrean, besteetan epe motzean, epe ertainean edo epe luzean, non hamaika ahots entzun behar diren.



Xabier Iridoy
EAJ-PNVko Irungo Udalerako alkategaia

Eta hori da ere nire proposamena datorren maiatzaren 22ko hauteskundeen ondoren irekiko den garai berrian Irungo politikari aurre egiteko: kalearekin beti hurbilean izango den udal gobernu, elkarrizketa ezinbesteko tresna proiektuak zehazteko eta akordioak bilatzeko, tinkotasuna eta gardentasuna erabakiak hartzerakoan, baina baita udal taldeei eta hiritarrei azaltzerakoan; instituzioen arteko jarraipeneko elkarlana, bai amankomuneko estrategiak finkatu eta garatzerakoan, bai eta ere zailtasunak eta desadostasunei aurre egin behar zaizenean ere; eta konfiantza, elkarrekin udalak eta hiritarrok, egingo dugula Irunek izan behar duena ezer baino lehen: irundar guztiontzat hiririk hoberena, hiri iraunkor eta atsegina, baina solidarioa eta konprometitua, hiri bat non segurtasunez bizi eta eta lan egin daiteken, ilusio eta egonkortasunez. Prest gaude!



Korrika apirilaren 12an Irundik igaroko da

Korrika badator! Euskararen aldeko lasterketa erraldoia Trebiñutik apirilaren 7an abiatuko da, eta Donostian amaituko da hilaren 17an. Bidasoaldea zeharkatuko du apirilaren 12ko gauean. Gurean, herritar ugari lotuko zaizkio.

Korrika, AEK-k antolatua, euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskolen zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Lortutako dirua bereziki baliagarria izango da bestelako sostengu ekonomikorik ez duten Nafarroako eta Iparraldeko euskaltegiak finantzatzeko.

Aurtengo goiburua

Korrikaren hamazazpigarren edizioak 2.000 kilometro baino gehiagoko ibilbidea egingo du Euskal Herri guztian barna, kilometro bakoitzean barruan mezu bat daukan lekua eskuz esku pasatuko dela. Aurtengo

goiburua EUSKALAKARI izango da. Definizioa honakoa da: euskara maite duena, ikasten eta erabiltzen duena. Beraz, Korrikak euskaraz bizitzera animatu nahi ditu herritarrak.

Omendua, Euskaltzaindia

Euskaltzaindia da euskararen lurralde osoa aintzat harturik hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala. 1919. urtean sortu zenetik lan eskerga egin du euskara babestearen alde. Tartean euskara batuaren arauak finkatu zituen eta euskalkien ondarea ere jasotzen jakin du. Horregatik, besteak beste, Korrika 17k omendu nahi du.

Korrika Txingudin

Korrika apirilaren 12an gaueko 22:30ean sartuko da Txingudin, zehatzago Hendaiatik (*Ikus 18. orrialdeko ordutegia*). Irundik Hondarribira abiatuko da; handik, berriz, Katea auzora eta Oiartzun aldera, gauerdirean. Zain izango ditu eskualdeko euskaltzale ugari, lekukoa pixka bat gehiago Donostiara hurbiltzeko, Gipuzkoako hiriburuan Korrika bukatu eta bertan ospatuko baita azken jai handia.

Korrika nola lagundu eta parte hartu

Korrikak 17 kilometroko ibilbidea egingo du Irunen eta Hondarribian barrena. Ia-ia guztiak salduta daude dagoeneko. Baina badira laguntzeko beste hainbat modu:

- *Korrika laguntzaile* euskarria erosiz AEK euskaltegietan. 12 euroren truke laguntzaileei zenbait saltokitan deskontuak egingo zaizkie.
- Materiala edo oroigarriak erosiz.
- Petoa edo bizkarrekoa erosiz, AEKn.
- Herriz herri egiten ari den diru bilketan lagunduz.
- Enpresa edo saltegiek, korrikalaria, korrika-lagun txartela edo Korrika iragartzeko aterako diren bestelako euskarriak babes-tuz.

Eta, jakina, lasterketan edota azken jaiaren parte hartuz!



Goian, 2009ko Korrika Hendaian barrena; behean, Santiagoko zubia zeharkatzen ari zenean.



higer bidea, 6-
20280
hondarribia.
gipuzkoa
t(34) 943 64 27 12

arrokaberri@arrokaberri.com
www.arrokaberri.com



Korrika kulturala Irunen

Korrika Txikia: apirilaren 14an, 10:30ean, Gurutze Gorritik abiatuko da eta 12:00etan Zabaltza plazan amaituko da.

Bertso afaria, martxoaren 18an, Lakaxita gaztetxean.

Zinea: martxoaren 31n, 19:30ean, *Bidaia intimoa* filma Lakaxitan.

Jaia Moskun: apirilaren 9an, Zura taldearen kontzertua. 18:30ean, bertso poteoa Uxue Alberdi eta Beñat Gaztelumendirekin.

Hitzaldi musikatua: apirilaren 16an, 20:30ean, EKTn Andoni Tolosa "Morau"-ren eskutik, *Euskal kantagintza berriaren historia laburra 1961-92*.

Korrika afariak: apirilaren 12an.



2009ko Korrika txikia Irunen

IRUNGO SUPERRINDARTSUAK

50M-ko
DUQA

+

TB
Digitala

Irunerako eskaintza eksklusiboa da hau. Eza ezazu informazioa Colan Pasealekua 28. zenbakian dugun saltokian, edo esku ezazu deon 1717 zenbakira.

ETV/IRUN
JANUARI 30AURKAKA

"Igariko duzu"
Fernández Cañas
familia. Iruneko
bizilagunok

euskaltel
Zuzeneko

Ibilbidea Txingudin zehar

	Tokia	Eguna	Ordua
Hendaia	Mr. Bricolage	Apirilak 12	22:30
	Farmazia (eskuin)	Apirilak 12	22:36
Irun	Renault garajea	Apirilak 12	22:43
	Ficoba	Apirilak 12	22:50
	Dunboa eskola	Apirilak 12	22:57
	Bazar Uranzu	Apirilak 12	23:04
	EH hiribide erdiko biribilgunea	Apirilak 12	23:10
Hondarribia	Kolon galeriak	Apirilak 12	23:17
	Alkain	Apirilak 12	23:23
	Aireportua	Apirilak 12	23:30
	Udaletxea	Apirilak 12	23:36
	Hondar taberna	Apirilak 12	23:43
	Santa Engrazia	Apirilak 12	23:49
	Amute	Apirilak 12	23:56
Irun	Letxunborro	Apirilak 13	00:02
	Akerreta	Apirilak 13	00:09
	Arretxe gaina	Apirilak 13	00:15
	Errepublikak eskola	Apirilak 13	00:22
	Ureder etxea	Apirilak 13	00:28
	Enbat etxe	Apirilak 13	00:35
	Gurutzeko biribilgunea	Apirilak 13	00:42

gesAR
gestoria ARANA
kontratazio de seguros

asesoria aholkularitza
integral integrala
ingenieria injenieritza
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.
IRUN

Tel: 943 666 050

Fax: 943 618 075

gestoria.arana@garana.com

Euskararen Hilabeteak ikuskizun eskaintza zabala eskaini die ikasleei

Martxoaren 11an amaitu zen Irungo eskoletako haurrentzat Udalak antolatutako Euskararen Hilabetea. Egun hartan, euskararen erabilera sustatzea xede duen programaren azken ekitaldia Zabaltza plazan burutu zen, Keima taldeak eskaini zuen *diskotxou* batekin eta Irun Irutene tailerrekin.

Halaber, Euskararen Hilabetean zehar euskarazko lau antzezlan taularatu dituzte, adin tarte bakoitzarentzat bana, non guztira 2.700 ikasle baino gehiagok parte hartu duten.

Bestalde, ohi bezala, Irueneren bi ale berezi plazaratu dira, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek ziklo bakoitzeko aurkeztu dituzten lan banaz osatuak. Gainera, hautatutako lanekin ikastetxe guztietan erakusketa bat antolatu da. Programak 19.000 euroko aurrekontua izan du.



Irun dastatu, sukaldaritza eskolak profesionalen eskutik

Martxoaren azken astearren eta apirilaren lehenengoaren artean emango dira Irungo La Salle eta Irungo Atsegiña gastronomia elkarteetan "Saborea Irun Dastatu" ekimenaren barruan antolatutako sukaldaritza eskolak:

- Martxoak 29: La Salleko Ikasle Ohien Elkartearen, Iñigo Lavado eta Julio Rebolledaren eskutik.
- Martxoak 31: La Salleko Ikasle Ohien Elkartearen, Inaxio Muguruza eta Felix Manso.
- Apirilak 5: Irungo Atsegiña Elkartearen, Iñaki Hernandez eta Koldo Salinas.
- Apirilak 7: Irungo Atsegiña Elkartearen, David

- Rodriguez eta Carlos Sagastizabalen eskutik.
- Aurreikusitako ordutegia: 19:30-20:30
- Lehenik, klasea emango da; ondoren, dastaketa saioa egingo da.
- Osagai nagusiak bakailaoa eta txokolatea izango dira.
- Prestatu eta gero, parte-hartzaileek prestatutakoa dastatuko dute
- Prezioa: Parte hartzaile bakoitzak 5na € ordainduko ditu.
- Klase bakoitzeko gehienezko izen-emate kopurua: 18 lagun.
- Izen-emateak: 010 telefonoan.

Oiasso Museoa, oparoago, 75 pieza berriei esker

Oiasso Museoa otsailean erakusketa iraunkor berria ireki zuen, orain hornituagoa, Eusko Jaurlaritzak lagatako 75 piezei esker. Irungo Udalak lortu du, beraz, museoa zabaldu zenetik (2006) erreklamatu duen eta tirabira-iturri izan den materiala. Hau ez zen, ordea, eskaera bakarra, Donostiako Arkeologia-Materialen Kudeaketa eta Zaintza Zentroan oraindik ere Higerreko brontzeak baitaude, balio handiko bilduma.

Oiasso berritua bertatik bertara ikustera Blanca Urgell Kultura sailburua Irunera etorri zen, Jose Antonio Santano alkateak eta Mertxe Urtega museoko zuzendariak lagunduta. Sailburuak jakinarazi zuen brontzeen inguruko ikerketa egiten ari direlako une honetan ezin direla laga, baina museoan erakutsi ahal izateko izapideek pixkanaka aurrera egingo dutelakoan dagoela.

Pieza berriak

Mertxe Urtegak bilduma berria museoan txertatzeko 4 hilabetez egindako moldaketak azaldu zituen. “Edukiaren %90 aldatu dugu, oso modu naturalean, aurretik museoa aztarna gehiago bere baitan hartzeko prestatua zegoelako”. Bereziki azpimarratu zituen Kaiaren aretoan buruturiko hobekuntzak, non Ctesibioren ponparen inguruko unitate tematikoa apailatu baita.

Halaber, arrantzaren erakustokia amuekin eta lastekin aberastu dute. Jantzien espazioari urrezko piezak, oinetakoen zolak, orrazi eta eraztun berriak gehitu zaizkio. Ingude bat, meatzaritzako kriseiluak, txintxarriak, altzarrietako zur puskak eta eraikuntzarako adreiluak ere ikusgai dira, besteak beste.



Goian, Ctesibioren ponparen maketa. Ura ateratzeko erabiltzen zen tresna honen balbula Irunen aurkitu zen. Behean: zolak pieza berrietako batzuk dira.

J.M. Zabalza zinegileari buruzko liburua idatzi du Gurutz Albisuk

José María Zabalza: Cine, bohemia y supervivencia izenburuko idazlanaren bitartez, Gurutz Albisuk Irunen jaio zen zinegile polifazetikoa gogora ekartzea izan du helburu. Idazlearentzat “pertsonaia liluragarria izan zen, bizitza gogor eta gorabeheratsukoa”. 50ekoen hamarkadan bere ekoizpen-etxea sortu zuen eta bi film berritzaile burutu zituen. Baina ekonomikoki porrot egin zuen, hein handi batean garaiko zentsuragatik. Handik aurrera etenik gabeko filmatzaile bilakatu zen. Euskal zinegileen artean filmografiarik ugarieneko dugu, 21 film luze errodatu baitzituen, generoko askotarikoak: western-ak, gangster-i buruzkoak, beldurrezkoak... 1978ko Aberri Eguna dokumental batean ere jaso zuen.

Jose Maria Zabalza liburuaren azala.



Enpresa-zentro berria ZAISAN

Sei enpresa berrirerantz tokia duen zentroa ireki da ZAISAN, sozietate honen eta Bidasoa Bizirikeren arteko lankidetzaren hitzarmenari esker. “Ekimen honen helburua sortu berriak diren enpresei laguntzea da, negozioa beren enpresa ezaugarriari egokitzen zaien espazio batean jar dezaten, eta, honela, topagune giroa sortzea”,

adierazi du Goizane Alvarez Bidasoa Bizirikeko presidentek.

Lokal berrietan kokatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza da gehienez ere 12 hilabetez fakturatu duen enpresa izatea.

Enpresa-zentroa ZAISA Ieko Europa kaleko G pabiloian moldatu dute.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISĒTAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

Zein baliotan hezi gure haurrak?

Azken aldian BALIO hitza denen ahotan dagoela dirudi, haur eta gazteak balioetan hezi behar ditugula gogorarazten digute adituek (psikologo, pedagogo, politikoeak...). Baina zein balio dira onak gure haurren garapen positiborako? Nola hezi balio positibotan balio konpetitibo eta balio fisikoei hainbesteko garrantzia ematen dien gizarte moderno honetan? Gaian sakontzeko, zenbait puntu argitzeari ekingo diogu:

Zer dira balioak?

Pertsonok egoera baten aurrean jokatzeko ditugun irizpideak dira balioak. Gertaera baten aurrean nola jokatu adierazten digute balioek. Adibidez, aitona zahar bat autobusera sartu eta lekurik ez duela ikusten dugu. Gure balioetan laguntasuna eta enpatia badago, altxatu eta lekua utziko diogu. Balio indibidualak baditugu, aldiz, ez gara mugitu ere egingo.

Beti hezten ari gara: Nahiz eta ez ohartu, balioak transmititzen ditugu etengabe, beti ari gara zenbait baliotan hezten.



▲ Egunean zehar gure haurrekin hamaika lasterketa edo konparaketa egiten badugu, lehiakortasuna transmititzen ari gaitzaizkie. Ordea, egunero dotore jantzita dagoela edo zein polita dagoen baloratzen badugu, pertsonaren alde fisikoari garrantzia ematen ari gaitzaizkio.

▲ Haurrak etxeko lanetan ari direnean, bakarrik lan egiteko plangintza egiten badugu eta lan ahalegina baloratzen badugu, autonomian eta arduran hezten ari gara. Hala, gure haurra zabuan gustura dagoen

arren beste haurrak ilaran zain daudela ikusi eta gure haurrari txanda utzi behar duela ohartarazi eta bertatik ateratzea bideratzen badugu, haurra elkartasunean hezten ari gara.

Zeintzuk dira balio positiboak?

Aurreko adibideetan ikusi dugun bezalaxe, balio ezberdinetan hezten dugu aldi oro. Gure gizarte materialista eta konpetitibo eta gizatasuna kentzen duten balioen heziketa transmititzen ditu. Baina har dezagun gogoetarako tarte



bat, eta pentsa: zein balio dira benetan oreka emozionala eman eta zoriotsu egiten gaituztenak? Ez al da heziketaren helburua pertsona autonomo eta arduratsuak egitea? Emanez eta maitatuz ez al gara zoriotsu sentitzen?

Gaur egun, hauek dira hezkuntzan bideratu beharko lirakeen balioak, mundu orekatu eta positiboagoa lortzeaz gain pertsonen zoriontasuna bideratzen dutenak (Ikus laukia).

Nola bideratu balio positiboak materialista, indibidualista, kontsumista, eta kompetitiboa den eta gizatasuna kentzen duen gizaratean?

Telebistatik bideratzen diren balioak ikusirik, ez da erraza haurrei balio positibotan heztea, baina bai beharrezkoa. Batzuetan paretaren kontra gaudela sentitzen dugu, hamaika aldiz errepikatzen dugu guretzat garrantzitsuak diren balioak eta ez ditugu maiz emaitzak ikusten. Baina horregatik balio positibotan hezteari utzi behar al diogu? Egunean zehar gure ahaleginen etekinak ez dira ikusten, baina gure hezkuntza positiboa gara-tzen ari da, hezkuntzaren emaitzak ez bait dira ikusten haur edo gaztea heldutasunera iritsi arte.

HELBURUA	BALOREAK (Adib.)
Nork bere buruaren jabe izatea, autonomia	Emantzipazioa, ardura
Inguratzen duenarekiko sentikorra izatea	Errespetua, elkartasuna
Parte hartzeko, hobetzeko eta aldatzeko gai izatea	Jakin mina, elkarlanerako gaitasuna, sormen, kritikotasuna, partaidetza

Adibidea: irabaztea ez dela garrantzitsuena, baizik eta parte hartu eta egiten dugunarekin disfrutatzea hamaika aldiz esan dezakegu, eta geroago gure haurrak berriro ere lehian ikusi; baina argi dut esandakoa nonbait geratzen dela. Esaten ez badugu ez dira ohartuko, ezta? Esatea bezain garrantzitsua da esaten duguna sinestea.

Batzuetan gure burua nekatuta sentitu eta aspergarriak garela sentiarazi arren, esateri eta sinesteari eutsi behar diogu:

▲ Ez da txapelduna lehena jaten duena, txapelduna poliki eta dena jaten duena da.

▲ Ez duzue partidua irabazi Mikelek gola sartu duelako, taldean elkarlanean aritu zarelako baizik.



▲ Maite ez da korrikalari txarra, denok gara ezberdinek eta korrika mantsoago egiten badu ere desberdintasunak aberasten gaitu, eta Maite izugarri ona da futboleant.

▲ Ez da egia mutilek ezin dutela negar egin, edo dantza egin, pertsona guztiak pertsona garelako nahi dugun guztia egin eta izan gaitetzke. Neska eta mutila ezberdintzen gaituena genitalak dira.

*KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA.*

kuttun@kuttun.net

Baginaren bakarriketak (Txalo produkzioak). Egilea: Eve Ensler. Zuzendaria: Begoña Bilbao. Antzezleak: Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai. Iraupena: 75 minutu.

Baginaren elkarrizketa mundialak

Eve Ensler estatubatuarraren *The Vagina Monologues* obra antzeztua ikusi dugu Irungo Amaia KZn. Idazlearen testuak –hamabi emakumeren baginaren hizketaldiak– entzun ditugu Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai antzezleen ahotik euskaraz, euskaraz dastatu, hausnartu eta gogotik gozatu ere bai. Bi emakumeen mintzaerak eta gorputz-espresioek –ene zentzumenek sentitutakoaren arabera– publikoaren begiak, belarriak eta gorputz osoa laketu dituzte.

“Paretak mintzo balira...” esan ohi dugu. Izan ere, zer ez duten paretak entzuten! Zer ez duten ikusten! Eta baginak mintzo balira? Izan ere, zer ez duten baginek entzun eta entzuten! Zer ez dute ikusi eta ikusten! Bada, baginak mintzo dira jada, ahotik mintzo ere. Baginaren mintzo suharrak goratik –eta garaitik– jalgi dira Garmendiaren eta Garairen baitatik.

Beren bagina inoiz ikusi ez –edota orgasmorik izan ez– duten emakumeen bizipean helarazi eta barnerazi dizkigute aktoreek bertaratutakoei. Orgasmoa sugartua izaten duten emakumeen mintzoa entzun dugu, hala nola baginaren a-hotsa behin ere entzun ez dutenena: Garmendiaren mintzoak nola irrintziak eta Garairen imintzioak hala intziriak publikoaren algarak iradoki dituzte barra-barra.

Ez dira, bada, paretak mintzo, baginak

Baginaren BAKARRIZKETAK



mintzo dira jada. Munduko baginak mintzatu dira Garmendia eta Garairen ahots gartsu eta garaietatik.

Baginaren bakarriketak izanagatik, baginek elkarrizketan dihardute sarritan. Eta bagina hitza ez da euren baginak izendatzeko izen bakarra. Aitziber eta Ainhoa ehundalako izenen bitartez despotorrazazi gintuzten entzule-ikusleok, potorririk gabeko zakildunok barne.

Bagina gora, bagina behera, bagina andana zabaldu izan dituzte. Paregabeko aktore pareak baginaren geruza guztiak zabalitzen ditu publikoaren aurrean. Elementia bagina erakutsi digu bikoteak, dozenaka potorro eta motxina tartean-tartean.

Baginaren bakarriketak munduko obren pare-pareko ikuskizuna da. Hots, mundiala. Honezkerok ezin dugu “paretak mintzo balira...” esan, engoitik “baginak mintzo baitira”.

Munduan –gure munduan– iraultza bakarra emakumeena dela esan badugu gaur arte, bada, are ozenago esan dezakegu baginaren mintzoak entzun ondoren. Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garairen antzezpenean mundialak baitira baginaren bakarriketak.

MIKEL ASURMENDI

Iratxe Esnaolaren opera prima da *Galerna*. 2009ko Augustin Zubikarai nobela saria jaso zuen. *Galerna* S.S. hirian gertatzen da. S.S. Donostia izan daiteke, baina izan daiteke Hendaia ere.

Galernaren zirimolan itota

Nork bere errealitatea bizi du, bere aldartearen arabera. Iratxe Esnaolaren nobelak galerna –edo enbata– baten zirimolan harrapatu ninduen nonbait. Behin irakurri nuen eta nobelak deskribatzen duen abuztuko azken egun sargorian ito nintzen. Norberak bizi duen errealitateak hutsune asko ditu, nireak ugari. Irakurtzeko unean hainbatetan “huts” egin nuen. Behar bezalako segimendu egiteko aldarte egokian ez nintzelako, akaso.

Nobela laburra da, alta. Berau bukatu nuen, eta istorioko lau protagonistekin batera –Nora eta Sebastian Bechener, neska nerabea eta honen aita– itota bukatu nuen.

Nor non nola kokatu ez nekiela amaitu nuen, itsas bazterre botatako naufragoaren antzo.

Bigarrenkoz bueltatu nintzen istoriora: hasi eta bukatu egin nuen segidan. Istorioak eta *Galernak* bat egin zuten nire baitan eta hobeto kulunkatu nintzen istorioaren zirimolan. Alabaina, lehen irakurraldiak jota utzi izanaren zorabioak nozitu nituen bigarren irakurraldian. Hara, egin dut nire aitormena.

Ziur asko ikasi beharra daukat irakurle gisa, Agian, ipuinak nobelak poesiak irakurtzerakoan, nora ezeko nire errealitatetik aldendu beharra daukat, idazleak eskaintzen duen istorioaren aurrean nire burua hobeto kokatzeko.

Galernarekin sentipen hori bizi izan dut. Nire lehen irakurketa traketsak bigarrena baldintzatu



Liburua: *Galerna*
Egilea: Iratxe Esnaola
Argitaletxea: Elkar

zuen. Lehen irakurketan ez nintzen nobelaren erritmora egokitu. Bizitzen ari nintzen tentsioak ez zidan lagundu istorioaren tentsioari heltzen. Une hartako nire sentimenduek ez zidaten pertsonaien sentimenduen gardentasunaren bitartez begiratzen lagundu.

Idazkerak berak ez ninduen liluratu. Ez dakit zergatik. Baten batek idazkera hotz eta zorrotzat jo du *Galernak* dakarrena. Eta ni motel epel eta kamuts harrapatu ninduen. Pertsonaiek sentitzeko eta maitatzeko dituzten manerak ezin hauteman. Pertsonaien ametsak talka egin zuten nire egunero-ko errealitatean. Neronek, une

hartan eta honetan, istorioak eskaintzen ez duen erromantizismoaren dosi handi bat behar nuela-ko agian?

Literatura irakurri eta nire inpresioak plazartzatzen ditut. Hainbatetan, begirada inpresionistez osatzen dut nire bizitza, zartada inpresionistez, positiboz eta negatiboz. Beraz, irakurle, nire inpresioek eta zuk jaso ditzakezunek ez dutela zertan bat eginik, ziur ezetz. *Galerna* besterik izanen da zuretzat. Eta niretzat ere, agian, beste aldarte batean. Holakoa duzu nire iruzkin hau, irakurle. Holakoa duzu, nobelaren egile. Bai, bai, Iratxe, zu zeu gogoan izan baitzaitut bereziki, iruzkin ziztrin honen egile.

MIKEL ASURMENDI

kultur agenda

Martxoak 24

- Oiasso Museoa, 19:00etan, hitzaldia, gaztelaniaz. *Hispania erromatarreko meatzaritza. Cabeza del Pinoko meatzaritzako eta metalurgiako konplexu errepublikarra*, Toulouseko Unibertsitateko Christian Rico doktorearen eskutik.

Martxoak 29



- Amaia, 19:00etan, Opera Zineman. Charles Gounod-en *Faust* opera proiektatuda. Antolatzailea: Luis Mariano Lirika Elkarte.

Apirilak 2-3

- Amaia KZn, 19:00etan. Charles Gounod-en *Faust* opera, Luis Mariano Lirika Elkarteak antolatuta. Sarrerak: Bazkideek 24

euro eta bazkide ez direnek, 30.

Martxoak 25

- Amaian, 20:00etan, ZINEA, *Nothing Personal*. Sarrerak: 4,40 euro.

Martxoak 24-31



- Lakaxita Gaztetxeak kultura anitzeko zinemaldia antolatu du. Proiektzioak 19:30ean hasiko dira.
- **Martxoak 24.** INTERNACIONALISMOA.
- **Martxoak 31.** BIDAIA INTIMOAK.

Erlaitzen irteera

- Apirilaren 2an eta 3an Erlaitz Mendi Elkarteak asteburu pasa antolatu du Bardeetan. Izen-emateak: 943 635838 (astearte eta ostegunetan) edo Irusta Kirolak: 943 611739.

Jam Session



- **TUNK!**en asteazkene-ro, 22:00etatik 01:00era, Jam Session, estilo mota guztiei irekita. Tunk-ek musika-tresnak uzten dizkizu. Zuk jo besterik ez duzu. Parte hartzen duten musikari guztientzat edari bat musu-truk. Anima zaitetz!
- **Martxoaren 25ean, gauerdian**, kontzertua, JUANTXI RODOLF BEVELAQUA + NATA SESION

Apirilaren 5etik 17ra

- Euskadiko Kutxako erakustaretoan, *Gorpuak hobbetik ateratzen, duintasunak berreskuratuz* erakusketa. Aranzadi Zientzia Elkarteak Gerra Zibileko hobien inguruan egindako ikerketa biltzen da.

Liburutegiko jarduerak

HAURRENTZAT

IPUINAK martxoaren 23an, Osaba otso. 30ean, Érase otra vez. Ordua: 17:30ean.

HELDUENTZAT

Martxoaren 24an, 19:30ean, *Historias de recuerdo.*

ERREZITALA OME-NALDI. Martxoaren

18an, 19:30ean hasita, Ikust-Alaiako Poesia Mintegiko kideen eskutik, Gabriel Celayari omenaldia bere jaiotzaren mendeurrenean.

LIBURU FORUMA Martxoaren 21ean, 19:00etan, Elena Poniatowska-ren *La piel del cielo.* Zuzendaria: Mertxe Tranche.

POESIA TERTULIAK Martxoaren 28an, 17:30ean, Jesus Rodriguezen eskutik. Egilea: Eli Tolaretxipi.

IRAKURKETA KLUBA Martxoaren 29an, 19:00etan, Mertxe Trancheren eskutik. Liburua: Isabel Franc-en *Las razones de Jo.*



Chillida-Gal erakusketa



- **Uztailaren 3ra arte,** Eduardo Chillidaren eta Menchu Galen erakusketa, Menchu Gal Erakusketa Gelan (Urdanibia plazan). Artista donostiarraren 20 obra grafiko eta pintore irundarren 17 marrazki ikusgai: hain zuzen, bion alderdirik ezezagunena.

Orduategia:

Ostiral eta larunbatetan: 18:00etik 21:00etara. Igandeetan: 11:30etik 13:30era.

Ekintzak euskaraz

Irun Iruten euskara elkarteak txokolatearen inguruko bi ekintza antolatu ditu.

- **Martxoaren 26an,** 9:30etan, Tolosako Gorrotxategi txokolate museora irteera.

- **Martxoaren 30ean,** 12:00etan, Basil Irunen gozotegi-ko Koldo Salinasek bonboiak nola fabrikatzen diren azalduko du.

Izena emateko: 943 63 56 02



Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lana



- **IRUNGO SOLAS-JOLAS UDALEKU** irekietako hezitzaile izan nahi duzu? Eskararak aurkezteko epea: martxoak 31. Informazioa:

www.irun.org/igazte



- **AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI** gisa lan egin nahi baduzu, jo ezazu Gazte Informazioaren weberra. Bertan enplegu-eskaintza zabaldua topatuko duzu.

Hezikuntza



- **ERASMUS EXPERIENCE PROIEKTUA** Europako hiri eta unibertsitateei buruzko ERASMUS Esperientziak biltzeko sortu da. Bozkatu ahal izango dira eta irabazleak ESN Ibiza Trip 2011 ekintzan parte hartuko du beste 2.500 Erasmus-ekin batera.

- **FULBRIGHT BEKAK.** 25 beka AEBetako edozein unibertsitatean graduondoko ikasketak egiteko. Epea: Apirilak 6.

Lehiaketak



- **TALENTOSDESIGN11 DISEINU LEHIAKETA.** Deialdigilea: Banco de Santander. Hainbat kategoria. Epea: Apirilak 26.

Bekak



- **BEKEN ERREFERENTZIAK** biltzen dituen gida. Beka baten bila bazabiltza, hauxe da zure gida!



Zure txokoa



- **TUENTI.** Ikas ezazu izena ONDO ematen Tuentin.

Etxebizitza alokatzea

Babes Ofizialeko alokairua, on line iragarriak, kontratua prestatzea, diru-laguntzak, ikasleentzako ostatu zerbitzuak...

Egizu **KLIK** Irungo Gazte Informazioaren webean.

Gazte-Txartel berria

Martxoaren 1etik aurrera, Gazte-Txartela erabiltzen jarraitzeko, berria eskuratu behar duzu.

www.irun.org/igazte





LA IMAGEN DEL DIA

Gipuzkoa TB Txingudiren
tarte berria

Bidal iezaguzu argazki bat:
paisaiak, ekintzak, salaketak...
Egunero bat aukeratuko dugu.





PROGRAMAZIOA

2011

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
7:00- 7:30	Txingudi Gaur laburpena (Errep.)	Txingudi Gaur (Errepikap.)			
8:30-9:00	Txingudi Gaur laburpena (Errep.)	Txingudiko Gaur (Errepikap.)			
9:00-9:30	El Gran Festini (Errep.)	Gipuzkoaldia (Errep.)	Abierto al público gastronomía (Errep.)	Gipuzkoa viajera (Errep.)	Tu economía (Errep.)
12:00-12:30	Carta y Cata (Errep.)	Tiempo Real	30 minutos (Errep.)	Gipuzkoa Gaur (Errep.)	Gipuzkoa Gaur (Errep.)
12:30-13:30	La hora de Boni (Errep.)	Tiempo Real (Errep.)12-13:30	30 minutos +1 (Erp.) Tu Economía	La hora de Boni (Errep.)	Grada Cero 12:30-14:00 (Errep.)
20:30-21:00	Ven de viaje 54	Abierto al público gastronomía	Politika Irun	Politika Hondarribia	Abierto al público gastronomía
21:00-21:30	Txingudi Gaur				Asteko berrien laburpena
21:30-23:00	La Banatua (Real Union)	Euskadi Prime Time			Zinea
23:00	El Gran Festini (Erp.)	30 minutos	Hablando Claro	Kirolan	Micrófono abierto
23:30	Carta y Cata (Errep.)	30 minutos+1		Micrófono abierto	Hablanco claro
00:00	Txingudi Gaur (Errep.)		Politika Irun	Politika Hondarribia	
00:30	La Banatua (Real Union)	Euskadi Prime Time			Zinea

	Larunbata	Igandea
11:30-13:00	La Banatua	Tu economía
		Hablando claro
15:00-15:30	Kirolan	Micrófono abierto
15:30-16:00	Micrófono abierto	Kirolan
20:00	Hablando claro	Kirolan
		Micrófono abierto
21:00-30	Politika Irun	Politika Hondarribia



BIZIKLETAK FABRIKAKO PREZIOAN

BICICLETAS A PRECIO DE FÁBRICA



✓ **KARBONOKOETAN ESPEZIALISTAK**
Especialistas en carbono

✓ **MOTA ETA PREZIO GUZTIETAKOAK**
Todo tipo de bicicletas

✓ **MERKATUKO PREZIO/KALITATE OREKARIK ONENA**
La mejor relación calidad/precio del mercado

✓ **KONPONKETAK 24 ORDUTAN**
Reparaciones en 24 horas.

✓ **TXIRRINDULARIARENTZAT OSAGARRIAK**
Complementos del ciclista



Juan Thalamas, 33 (Fosforera). IRUN 943 332133

www.gokacenter.com gokacenter@gmail.com



Biltegi eta bulegoak:
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

Dendak:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.
- Lanpara erakusketa.